

"Lasa-Zabala" auziaren epaia

(The Sentence in the Lasa-Zabala case)

SAINZ de ROZAS BEDIALAUNETA, Rafael

Zuzenbide Penaleko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena auzoa, z/g
48940 Leioa
dppsaber@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (1999), 6; 83-86]

Zasa-Zabala auzian emandako epaiaren nabarmentasun politikoa ukazina da. Bereziki interesgarriak dira epai honek etorkizunerako irekita uzten dituen aztergai juridikoak: erruztatuei egotzi zitzaizkien jokaerak gertatu zirenentz erabakitzean aintzakotzat hartu diren froga-helpideak, banda armatua nahiz tortura kontzeptuak zehazteko erabilitako irizpideak, eta aurreko Zigor Kodearen arabeko estalpen kontzeptuaren hedadura, lekuko zein erruztatu baten isiltasuna erostearen jokaerari dagokionez.

Za sentencia del caso Lasa-Zabala tiene una relevancia política indudable. De especial interés resultan las cuestiones jurídicas que no han sido del todo zanjadas: las pruebas que se han tenido en cuenta a la hora de verificar los hechos imputados, los criterios empleados para determinar los conceptos de banda armada y tortura, y la amplitud del concepto de encubrimiento según el anterior Código Penal con respecto a la compra del silencio de un testigo o imputado.

Za Sentence du cas Lasa-Zabala a, indubitablement, une importance politique. Les questions juridiques qui n'ont pas été réglées sont spécialement intéressantes: les preuves dont on a tenu compte à l'heure de vérifier les faits imputés, les critères utilisés pour déterminer les concepts de bande armée et torture, et l'ampleur du concept de dissimulation selon le Code Pénal antérieur concernant l'achat du silence d'un témoin ou d'une personne impliquée.



1983. urtean zehar, Frantziako hegoaldean zeuden ETAkideen aurkako ekintza bortitzak burutzearen ideia gero eta gehiago onartzen zen Barne Ministerioan. Rodríguez Galindo komandantea eta Elgorriaga gobernadore zibila horretaz jabetu zirenean, beraiek ere ETArekin aurka borrokatzeko bide horretan esku hartu behar zutelako erabaki zuten. Beren egitasmoa Frantzian aurki zitzaketeen ETAkideak atxilotu eta Espainiaratzean zetzan, Gipuzkoako Komandantziako guardia zibil batzuek baliatuz, beraiengandik informazioa lortzeko asmoz, geroago, gertatutakoa aurkitu ez zedin, atxilotuak desagertarazi behar izango balitz ere. Urte bereko urriaren 15ean, R. Galindoren agindupeko ezezagun batzuek José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabala Baionara bahitu eta Donostiara eraman zituzten. Bertan, Elgorriagak eskuratutako La Cumbreko jauregian, eta R. Galindok Angel Vaquero kapitainaren bitartez eman zizkien aginduak beteaz, Dorado Villalobos kaporalak eta Bayo Leal guardia zibilak bahituak galdekatu zituzten. Egun batzuk geroago, agindu berberei jarraituz, Bayok eta Doradok, beste pertsona batzuekin batera, Lasa eta Zabala Alacanteko Busoteko herrira loturik eta bozaturik eraman, tiroz hil eta gorpuak 50 kg. karepean ehortzi zituzten.

Hona hemen, laburturik, Entzutegi Nazionalak frogatutako hartu dituen egitateak. Euren kalifikazio juridikoari dagokionez, Rodríguez Galindo, Elgorriaga, Vaquero, Dorado eta Bayori bi erailketa eta legez kontrako bi atxiloketa bana egotzi zizkien auzitegiak. Guztiei hartu zitzaizkien kontuan, halaber, euren izaera publikoak baliatzearen inguruabar astungarria. Zigorrek erruztatu bakoitzak zuen karguaren garrantziaren arabera zehaztu ziren. Beraz, erailketa bakoitzagatik askatasungabetezko 28 urte eta 6 hilabete ezarri zitzaizkien R. Galindo eta Elgorriagari, 28 urte Vaquerori eta 27 urte eta 10 hilabete Bayo eta Doradori. Bestalde, legezkontrako atxiloketa bakoitzagatik, kasuan-kasuan, askatasungabetezko 7 urte, 6 urte t'erdia eta 6 urte. Guztion artean, erantzukizun zibila dela eta, hildako bakoitzaren oinordekoei 25 milioi pezeta ordaindu behar izango dizkiete, Estatuak ordainketa honen sorospidezko erantzulea delarik. Epai hau irmo bihurtuz gero, eta aurreko Kode Penalak –kondenatuei onuragarriago izateagatik erabiltzen dena– zigorren betetzerako aurreikusten zituen arauak kontuan hartuz, kondenatu bakoitzari, gehienez ere, espetxean eman behar izango lituzkeen 30 urteetatik, lan egiteagatik barkatuko litzaiokeen denbora kenduko litzaioke. Beraz, ohikoa ez den zerbait gertatu ezean, 15 urteren buruan emango litzaieke baldintzapeko askatasuna, beti ere, indulto osoa zein partziala dela eta, Gobernuak aurretik askatzea erabakitzen ez duenean.

Gertakarion esanahi politiko ukaezinaz gainera, hiru arazo nabarmentzen dira epai honetan, etorkizunerako irekita uzten dituzten aztergai juridikoengatik. Lehenengo eta behin, epaileek egitatezko osagaiak jorratzean erabili dituzten helpide zein ildo logikoa; bigarrenez, banda armatuaren kontzeptua zehazteko

“ Hiru arazo nabarmentzen dira epai honetan: epaileek egitatezko osagaiak jorratzean erabili dituzten helpide zein ildo logikoa, banda armatuaren kontzeptua zehazteko erabilitako irizpideak, eta Argote eta Veraren absoluzioa xedatzearen arrazoiak ”

erabilitako irizpideak; azkenik, estalpena eta bidegabeko eralgiketa delituengatik erruztaturik zeuden Argote abokatua eta Vera Segurtasunerako Estatu idazkari ohiaren absoluzioa xedatzearen arrazoiak.

Akusatuei leporatzen zitzaizkien ekintza batzuk bakarrik jo dituzte frogatutako epaileek. Aldiz, La Cumbren egindako itaunketan eta Busoterainoko eramatean zehar gerta zitezkeen lesio eta torturei dagokienez, errugabetearen alde jo dute, aurkeztutako frogak zalantzararik zirelakoan.

Ildo honetan, hiru frogak-helpide izan dira erabakigarriak: alde batetik, Felipe Bayok berak 1997ko abuztuan egiten duen deklarazioa: bertan aitortzen zuenez, bera eta Dorado arduratu ziren La Cumbreko jauregian Lasa eta Zabalaren zaintza zein itaunketaz, R. Galindok, Elgorriagarekin adostuta, ematen zizkien aginduei jarraituz. Komandanteak, Bayoren arabera, Vaquero kapitainaren bitartez helarazten zizkien aginduak, baita zuzenki ere, bera eta gobernadore zibila atxilotuak ikustera bertaratu ziren egunean. Bahiketa, lesioak eta hilketari dogokienez, ordea, Bayok ez zuen inoiz aitortu halakoetan esku-hartzerik izan zuenik. Aitorpen honen geroagoko ukatzea ez da sinesgarria, epaileen ustez, hiru arrazoiengatik: a) Espetxean zegoela, Vaquero eta Goñi Tirapu gobernadore zibila Bayok bere aitorpena alda zezan eragiten saiatu ziren. Auzitegiak ez du elkarrizketa honen grabazioa egitatean aitortpentzat hartzen, bertan esaten dena ez zelako berezko ekimenez adierazi. Hala ere,

ondoko aldaketaren azalpen gisa aintzatestekoa da epaileen ustetan eta, beraz, ordurarte Bayok emana zuen bertsioaren egiazkotasuna indarreztatzen du; b) Bayok La Cumbreko jauregiari buruz bere garaian eman zituen datu zehatzak; c) Epaiketa amaitezakoan Bayok esan zituen azkenengo hitzak: aurreko aitorpena etsipenaren ondorioa izan omen zen, Rodríguez Galindo bere nagusiak "bera eta Dorado frontean laga zituela ikusiz". Hemendik ondorioztatzen dute epaileek Bayo eta Doradok R. Galindoren aginduak beteaz jardun zutela, hori dela eta Galindok abandonatzen zituela sentitzeko izan zezaketen arrazoi logiko bakarra.

Bigarrenez, 2345 lekuko babestuak (instrukzioan zehar eraso eta bortxaketa jasan omen zuena) esandakoa, Doradok gertakari hauen inguruan jakinarazi zionari buruz: Bayoren aurreneko aitorpena egiaztatzeaz gain, Doradok aitortuko ziokeen berak eta Bayok, beste guardia zibil batzuekin batera, Lasa eta Zabalaren bahiketa eta hilketan ere parte hartu zutela.

Hirugarrenez, López Carrillo polizia nazionalak adierazitakoa. Hots, R. Galindo eta Egorriaga bahiketaz nola jabetu ziren, eta La Cumbreko jauregiaren giltzak Gobernu Zibilean eskatzeko agindu ziotela, bertan atxilotu batzuk Guardia Zibilaren ardurapean gordetzeko.

Lesioen delituak, aldiz, ez ziren aintzakotzat hartu. Karearen eragina dela eta, gorpuetan ez zen zati bigunik aurkitu. Beraz, epaileen ustetan, agertutako bendak zauriak egotearen zantzuak badira ere, ezin da zalantzarik gabe zehaztu hil aurreko lesiorik egon zenik. Halaber, buruhezurretako traumatismoak, bigarren autopsiak agerrarazi zuenez, biktimek buruan jaso zituzten tiroen ondorioa izan zitezkeen. Azkenik, eriei faltatzen zitzaizkien azazkalei dagokienez, gorpuek zati bigunak galtzean modu naturalean aska zitezkeen.

Jakina, epaileek *in dubio pro reo* hastapena errespetatu nahi izan dute, eta jakin badakigu ez dagoela zigorra ezartzerik oinarri finkorik gabeko zantzu hutsetatik abiatuz. Hala eta guztiz ere, epaia irakurtzen duen edozeini berehala sortzen zaizkion galderak nabarmenak dira: ba al liteke pentsatzea, pertsona biri informazioa ateratzeko bahiketaz hasi eta eraiketat amaitzen den itaunketa batean zehar, bendaz estalirik agertzen diren biktimek lesiorik jasan ez dutela? Galdekatzean torturatu ez balituzte, zergatik hil eta desagertarazi behar izango zituzketen?

Lesiorik egon balitz ere, ez zegokeen tortura deliturik auzitegiaren ustez, torturak egon daitezen behar den betekizun bat falta delakoan. Izan ere, aurreko kode Penaleko 204bis art.ak galdatzen zuenez, lesioak auzitegien zein poliziaren ikerketa batean zehar sortarazi behar ziren, aitorpen edo lekukotza lortzeko. Gaur indarrean dagoen Zigor Kodean 174 art.ko torturaren tipoaren eremua ez da hain murriztua, zauriek ez dutelako zertan ikerketa zehatz baten inguruan sortaraziak izan. Beraz, erruztatuei

onuragarriago zaienez, aurreko Kodea erabiliko da: Lasa eta Zabalari egindako itaunketaren emaitzak inolako ikerketa formaletan agertzen ez direnez, balizko lesioak ez ziratekeen torturak izango, edozein norbanakok egin zezakeen lesio delitu arrunta baizik.

Ezin gara ikuspegi honekin bat etorri: kasu honetan polizia-prozedura formalik ez bazegoen ere, ez dago ukatzerik auzitegiak berak ohartarazten duena: bahiketok eta itaunketa agintzean, R. Galindoren helburua atxilotuengandik ETaren jardueri buruzko informazioa eskuratzea besterik ez zen. Beraz, ondore hauetarako, eta aurreko Kode Penalera erabili behar denean torturaren aurkako babes penala sarritan ezerezean gelditu ez dadin, polizia-ikerketaren kontzeptu materiala erabili beharra dago. Hau da, kontzeptu honen esparruan, delitugintzari buruzko informazioa lortzeko xedea duen edozein polizia-jardura barneraturik dagoela ulertu behar da. Ildo honetan, Lasa eta Zabalari sortaraziko zitzaizkiekeen lesioak tortura izango ziratekeen, atera nahi zitzaizen informazioa Intxurrondoko kuartelean aurrera eramaten ziren ikerketa-ildoetan erabiltzekoa zen heinean. Osterantzean, ikerketaren kontzeptua zehazterakoan ikuspegi formal bati eutsiz gero, nahikoa izango litzateke poliziak sortaraz ditzakeen lesioak prozedura ofizial batetik at egotea, tortura delitua ez ezarri ahal izateko.

Auzitegiaren arabera, banda armatu baten kidea izatearen delituak lau osagai galdatzen ditu: a) pertsona batzuk, delitugintzan aritzeko, modu iraunkor eta egonkorrean elkartzea; b) su-armak erabiltzea; c) terrorismoaren erakusgarria: hots, erabili helpideak zein egiten diren delituengatik, biztanleak beldurtaraztea; d) osagai subjektibo bat: aipatu beldurra sortarazteak izan behar du elkartearen helburua, bilatutako azken asmoa edozein bada ere: bai Konstituzio ordena iraultzea, bai demokrazia indarreztatzea. Gure kasuan, erruztatuek, modu iraunkorrean, Guardia Zibilaren Gipuzkoako Komandantziaren egituraren baitan jarduten zuten. Hala ere, egitura horren egonkortasunaren helburua ez zen delituak egitea, poliziari dagokion zeregina betetzea baizik. Aldiz, erruztatuek delitu egiteko elkartzen ziren heinean, euren antolaketa ez zituen, epaileen ustez, delitu honen ezaugarriak diren egonkortasun eta iraunkortasuna. GAL siglak, Julián Sancristóbalen Segundo Marey bahitzean sortu zituenetik, beste delitu batzuetan erabili dira. Hala ere, ezin da lotura zuzenik ezarri, Entzutegi Nazionalaren esanetan, auzi horretan kondenaturik suertatu ziren pertsonak eta gure kasuan erruztaturik daudenen artean, ezta hauek erabiltzen duten egitura eta GALi leporatutako beste edozein ekintzatan erabilitakoaren artean ere. Beraz, ez da frogatu erruztatuek, Lasa eta Zabalaren aurka egindakoan ez ezik, antzeko ekintzetan aritzeko gutxieneko egonkortasunez elkartu zirenik.

Hona hemen eztabaidarako gai bikoitza: alde batetik, egitatezko arazo bat: ez dago oraindik frogaturik GALen izenean burutu ziren delituak

REPUBLICA DE ESPAÑA
 MINISTERIO DE JUSTICIA
 SEMANARIO Nº 1595
 JUZGADO CENTRAL DE INSTRUCCIÓN Nº 1
 BILBAO DEL 26 DE ABRIL DE 1998

ASISTENCIA NACIONAL
 SALA PENAL
 SECCIÓN PRIMERA

Excmo. Sr. Presidente
 D. Sr. García Pérez.

Jueces, Sres. Magistrados:
 D. Carlos Cejudo González
 Dña. Mariacristina Fernández Prado.

En la villa de Madrid, el día 26 de abril de 2000, la Sección Primera de la Sala Penal de la Audiencia Nacional, ha dictado

EN NOMBRE DEL REY

la siguiente

SENTENCIA

En el sumario Nº 1595, seguido por delitos de asesinato y otros, en el que han sido partes, como acusador público, el Ministerio Fiscal, como acusación particular, Felipe Arturo Sagastume y M^{te} Jesús Argote Berroa, bajo la representación del Procurador Sr. Ferrnando Anzuza, asistidos de los Letrados Sres. Iñaki Sáenz y Sara de Sotola María Muntanegi, como acusación particular, el Excmo. Apuntador de Tercero y la Asociación contra la Tortura, bajo la representación del Procurador Sr. Montes Pico, asistido de los Letrados Sr. Valdear Sagastume y Sra. López Alvarez, y, como acusados:

ENRIQUE RODRIGUEZ GALINDO, nacido en Granada el día 5-2-1939, hijo de Enrique y de Carmen, con D.N.I. 30.138.625, defendido por los Letrados Sr. Faustor-Fabriz Tortillas y Sr. Bayarzo Zúñiga y representado por la Procuradora Sra. Bermejo Chicón. Se encuentra en libertad provisional por esta causa, habiendo estado privado de ella desde el día 23-05-96 hasta el 02-08-96, y desde el día 15-9-97 hasta el 26-6-98.

REPUBLICA DE ESPAÑA
 MINISTERIO DE JUSTICIA

JOSE JULIAN ELGORRIAGA GOYENECHE, nacido en Pamplona el día 3-2-1948, hijo de Bernardito y de Estefanía, con D.N.I. 15.227.507, defendido por el Letrado Sr. Lorenzo Motiolo y representado por la Procuradora Sra. Lozano Motiolo. Se encuentra en libertad provisional por esta causa, habiendo estado privado de ella desde el día 19-05-96 hasta el 28-07-97.

ANGEL VAQUERO HERNANDEZ, nacido en Villanueva de Gómez (Ávila) el día 7-9-1951, hijo de Luciano y de Asunción, con D.N.I. 74.133.403, defendido por el Letrado Sr. Argote Alarcon, y representado por la Procuradora Sra. María Ríos. Se encuentra en libertad provisional por esta causa.

ENRIQUE DOKADO VILLALOBOS, nacido en Villanueva del Fresno (Badajoz) el día 24-2-1957, hijo de Antonio y de Estrella, con D.N.I. 8.777.331, defendido por los Letrados Sres. Argote Alarcon y Madero Nájera y representado por la Procuradora Sra. María Ríos. Se encuentra provisionalmente privado de libertad por esta causa, desde el día 20-5-1996.

FELIPE BAYO LEAL, nacido en Madrid el día 1-1-1960, hijo de Felipe y de Angeli, con D.N.I. 5.502.527-8, defendido por los Letrados Sres. López-Montero Juarez y Zapata Sosa Aguilera y representado por la Procuradora Sra. Beatriz Horta. Se encuentra provisionalmente privado de libertad por esta causa, desde el día 20-5-1996.

RAFAEL VERA FERNANDEZ-HUIDOBRO, nacido en Madrid el día 7-2-1945, hijo de Manuel y de Angélica, con D.N.I. 556.345, defendido por los Letrados Sr. Celso del Real y Sr. Juan Carrasco y representado por el Procurador Sr. Alonso Balderama. Se encuentra en libertad provisional sin fianza por esta causa.

JORGE ARGOTE ALANCON, nacido en Madrid el día 22-13-1966, hijo de Federico y de M^{te} Leonora, con D.N.I. 30.138.625, defendido por el Letrado Sr. Bernal Pérez-Herrera y representado por la Procuradora Sra. Leon Grande. Se encuentra en libertad provisional sin fianza por esta causa.

El Estado en parte como Responsable Civil Subsidiario bajo la representación de la Abogacía del Estado.

Ha sido Ponente la Magistrada Sra. Fernández Prado.

REPUBLICA DE ESPAÑA
 MINISTERIO DE JUSTICIA

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. El Juzgado Central de Instrucción Nº 1 inició las actuaciones como Sumario Nº 1595, al que se incorporaron las Diligencias Previas Nº 373787 del Juzgado de Instrucción Nº 1 de San Sebastián, y el Sumario 4784 del Juzgado de Instrucción Nº 2 de los de Alaba. El día 25 de mayo de 1996 se dictó Auto de Procesamiento contra ENRIQUE DOKADO VILLALOBOS y FELIPE BAYO LEAL el día 27 de mayo de 1996 contra ENRIQUE RODRIGUEZ GALINDO y JORGE ARGOTE ALANCON (ambos en el resultado se decretó el procesamiento de una persona, posteriormente revocado por la Sala, a raíz de la estimación del recurso de apelación) el día 19 de junio de 1996 se dictó Auto de Procesamiento contra JOSE JULIAN ELGORRIAGA GOYENECHE y RAFAEL VERA FERNANDEZ-HUIDOBRO, el día 18 de marzo de 1998 se amplió el procesamiento de los acusados y se acordó el procesamiento de ANGEL VAQUERO HERNANDEZ.

Para evitar cualquier género de comunicación objetiva, la Sección 1^ª trasladó todos los recursos, que le fueron remitidos en esta fase, a la Sección 2^ª, para su resolución.

SEGUNDO. El día 23 de abril de 1998 se dictó Auto de conclusión, y se acordó la remisión a la Sala. lo que se llevó a efecto el 14-05-98. Dicha es la que en esta Sala se recibieron los 46 tomos del sumario y los datos previos de actuación de los procesados ENRIQUE DOKADO VILLALOBOS y FELIPE BAYO LEAL, las diligencias concur por el instructor los recursos previos, y asimismo que "los demás papeles separados, como: fotocopias de diligencias, de responsabilidad civil, y otros, señaladas las que resultan finalizadas, habida cuenta de la complejidad y voluminosidad de las mismas y que están detalladas en oficio aparte para su mejor control". Los días 20 y 21 de mayo de 1998 se recibieron las actuaciones diligencias de notificación del auto de conclusión a los partes. Los días 25 y 27 de mayo de 1998 las partes de situación de ENRIQUE RODRIGUEZ GALINDO y ANGEL VAQUERO HERNANDEZ, y las de otras personas cuyo procesamiento no se consuma. El 3 de junio de 1998 para Sala solicitó del instructor la remisión de la totalidad de las piezas separadas, como expresado del contenido de cada una de ellas y en su caso informe de las causas que lo impidiera. Posteriormente se recibieron las partes que se fueron habiendo concur en las diligencias del 1 de junio, 4 de junio, 9 de junio, 10 de junio, 2 de julio y 15 de julio de 1998. El día 19 de octubre de 1998 se recibió testimonio de los Autos dictados por la Sección Segunda de este Tribunal, que desvirtuaban los recursos de apelación que pedían contra el Auto de Procesamiento de ANGEL VAQUERO HERNANDEZ y de ampliación de los demás procesados, y se reiteró al Juzgado instructor la solicitud de remisión de las piezas separadas. El 21 de octubre de 1998 se comunicó por parte del Juzgado que estaba pendiente de estudio de informe una pieza de investigación buscada, y que sólo resultó la remisión de los datos impugnationales y las partes de documentación fotostática, que estaban siendo ordenadas para su envío en oficio aparte. El día 4 de noviembre de 1998 se recibió la pieza separada de transcripciones telefónicas, 2 tomos, junto con 19 tomos y 5 sobres correspondiendo a las transcripciones. En resolución de 5 de noviembre de 1998 se acordó que el Juzgado instructor que procediese a la custodia y copia de las cintas con las transcripciones,

Lasa-Zabala auziaren epaieko lehen orrialdeak.

elkarte edo egitura berberaz baliatuz egin zirenik. Euren egileen atzean Estatuaren Segurtasunaren lehen mailako agintariak zeudela egiaztatu bada ere, prozedura anitzen instrukzioan zehar ezin izan da beraien arteko lotura zehatzik ezarri. Bestetik, interpretazio arazo bat: gure ustez, banda armatu baten egitura iraunkorra eta egonkorra dela esan ahal izateko, ez dago zertan delitu bat baino gehiago egin, beti ere, delitugintza mota honetan denboran zehar aritzeko helburuaren beste froga batzuk badaudenean. Hala gertatzen da gure kasuan, non argi eta garbi egiaztatzen den R. Galindo eta J. Elgorriagak sortutako elkartearen asmoa ez zela murrizten auzi honetan epaitzen den ekintza burutzera, baizik eta, Guardia Zibila Gipuzkoan zuen egitura zilegiari baliatuz, ETaren aurka bahiketa eta hilketen bitartez borrokatuz. Ez al da hori arrazoi nahikoa beren ekintza hau modu iraunkorrean legez kanpo jarduteko osaturik zegoen elkarte baten baitan gertatu zela ondorioztatzeko? Nabaria da, bestalde, oraingo honetan erabilgaito interpretazioa eta Epaitegi Gorenak "Xaki" elkartearen inguruan ontzat eman berri duenaren arteko kontrajartzea. Azken honen kasuan, ETarekiko balizko laguntza emateko erabil zatekeen nazioarteko egitura zilegia izateak ez du esan nahi, epaileen ustez, egitura hori ETaren sareari ez dagokionik, izan ere, horixe baita antolaturiko delitugintzan erabili ohi den "ezkutatzeko teknika".

Bukatzeko, Rafael Verari leporatzen zitzaion bidegabeko eralgiketa aipatu beharra dago, baita berari zein Argote abokatuari egotzitako estalpen delitua ere. Bi akusatuen hauen aurkako froga bakarra Luis Roldánen deklarazioa izan zen. Lekuko honen arabera, Bayo eta Doradori enplegu eta soldata eten egin bazitzaizkien ere, beraientzako diru kopuru batzuk eskatu zizkion Argote abokatuak Roldán berari, euren isiltasuna erosteko asmoz. Kopuruon ematea egiaztatuz badago ere, Roldánek berak aitortzen du diru-emate hauek

ohikoak zirela egoera berean zeuden beste guardia zibil batzuen kasuan. Bestalde, Roldán eta Veraren arteko ezinikusia ezaguna denez, kolokan jarri behar da bere lekukotza. Beraz, *in dubio pro reo*: ez dago herri ondasunen bidegabeko eralgiketarik, ezin baita zehaztu diruaren jatorria, ezta emate horiek eta auzi honetan epaitzen diren ekintzen arteko lotura.

Estalpenari dagokionez, aurreko Kode Penalak, besteak beste, delitu baten errudunari ezkutalekua eman zein ihesa ahalbideratzearen jarduerak barnebiltzen zituen estalpenaren esparruan. Ildo honetan, auzitegiaren arabera, norbaitek erruztatu baten isiltasuna erosten badu, bere jarduerak ez dio zehatz-mehatz erruztatu horri ihesa ahalbideratzen, jokoaraz erruduneri ikerketa sahiesten laguntzea badakar ere. Kode Penal berriak, aurrekoak ez bezala, estalpenaren kontzeptua ezartzean, beren beregi aipatzen du "ikerketa sahiesten laguntzea". Hemendik ondorioztatzen dute epaileek aipatu jarduerak ez zegoela, aurreko Kodearen arabera, estalpenaren eremuan barne. Dirudienez, epai honek aurreko Kodearen "ihesa ahalbideratzea" zertan zetzan zehaztean erabiltzen duen irizpideari jarraituz, pertsona bati buruzko ikerketa martxan badago, ikerketa hori sahiesten dezan laguntza ematea estalpena dugu. Aldiz, errudunari laguntza bera ematen bazaio, baina agintariak berari buruzko ikerketa ireki baino lehenago, ez dago estalpen delituri.

Hona hemen eztabaidarako beste gai interesgarri bat. Espero dezagun berak zein epai honetatik erator daitezkeen hausnarketa juridiko zein politiko guztiek eskubide eta berme demokratikoen defentsari euts diezaiogun balio dezatela, bai hiritarrok estatuaren aurrean aldarrikatu beharreko askatasun esparruetan, baita elkartzeko politikoa sor daitezkeen gatazka guztietan ere.

